



hitz&hitz

hitzaldi zikloa ciclo de conferencias

hitzaren balioa - el valor de la palabra





hizlariak ponentes

otsailak 14 febrero

daniel innerarity / sixto jiménez

martxoak 22 marzo

pedro miguel etxenike

apirilak 19 abril

bernardo atxaga

maiatzak 10 mayo

garbiñe biurrun

iruñeko planetarioan en el planetario de pamplona

19,00



aurkezpena presentación

San Fermin Ikastolak Nafarroa Oinezeko aukeratu duen leloak (Kolore&Hitz) hitzari eman nahi diogun garrantiza islatzen du. Hitza komunikazioaren gako gisa, kulturaren eta gure hizkuntzaren transmisiorako ezinbestekoa, hainbeste aberasten gaituen hausnarketarako ere giltzarri.

Oraingo honetan, ospe handiko hainbat adituri eman nahi die hitza ikastolak, gai garrantzitsu batzuei buruz pentsatzen dutena esan diezaguten: egungo krisia, bai ekonomiaren ikuspuntutik bai filosofiaren ikuspuntutik; zientziaren egoera eta etorkizuna; idazlearen zeregina; justiziaren erronkak... horiexek dira, besteak beste, zikloan jorratuko ditugun gaiak.

Antolatutako hitzaldiek kultura-balioa erantsi nahi diote 2012ko Oinez jaiari, gure ikastolarekin zerikusia duten pertsoneri zein gainerakoei eskainita.

El lema que San Fermin Ikastola ha elegido para el Nafarroa Oinez (Kolore&Hitz) refleja la importancia que queremos otorgarle a la palabra. La palabra como clave de la comunicación, imprescindible para la transmisión cultural y de nuestro idioma. Palabra fundamental también para la reflexión que tanto nos enriquece.

En esta ocasión, nuestra ikastola quiere dar la palabra a varios reconocidos expertos para que nos hablen sobre temas que consideramos importantes: la actual crisis, vista tanto desde el punto de vista económico como filosófico; la situación y futuro de la ciencia; la labor del escritor; los desafíos de la justicia... esos son, entre otros, los asuntos que trataremos en este ciclo.

Las conferencias organizadas quieren dar un valor cultural añadido al Oinez 2012, ofreciéndoselo tanto a las personas relacionadas con nuestra ikastola como a la población en general.

daniel innerarity sixto jiménez

gizartea krisiaren aurrean: egokitzea edo aldatzea (gaztelaniaz)
la sociedad ante la crisis: ¿adaptación o cambio?

Daniel Innerarity

Bilbon jaio zen, 1959an. Egun, Filosofia sozial eta politikoko katedraduna da, Zaragozako Unibertsitatean. Alexander von Humboldt Fundazioko bekaduna izandakoa da. Hauexek dira bere azken liburuak: *Ética de la hospitalidad*, *La transformación de la política* (Miguel de Unamuno III. saiakera-saria eta 2003ko saiakera-sari nazionala), *La sociedad invisible* (Espasa-ko XXI. saiakera-saria), *El nuevo espacio público* eta *El futuro y sus enemigos*. Sociedad de Estudios Vascos/Eusko Ikaskuntzako humanitate, kultura, arte eta zientzien saria ere jaso du, 2008an. Iritzi-kolaboratzaile aritzen da *El País* eta *El Correo/Diario Vasco* egunkarietan, baita *Claves de razón práctica* aldizkarian ere. Zientzia eta Arter Akademiako kidea da (Salzburgen du egoitza nagusia).

Sixto Jiménez Muniain.

Zangozan jaio zen, 1950ean. Zientzia Ekonomikoak ikasi zituen, Deustun. IAN-ko eta Viscofán taldeko kontseilari delegatua izan da. Egun, Tuttipasta-ko presidentea da (aldeaz aurretik prestatutako platerak), eta ondokoetako kontseiluetako kidea: Metrovacesa, Gecina (Frantzia-higiezinak), Lokku (UK-internet), Riberebro (landare-kontserbak), Innoliva (Espainia eta Portugal-olioa) eta Argenol (farmazia). Kulturaren munduari dagokionez, Advisory Board of CBS of the University of Reno erakundeko kidea da, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa aztertzeko Fundazioko (FHEDAV) patroia eta Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariordea. Jakiunde- Zientzia, Arte eta Letren Akademiako diruzaina da. Irakasle aritu da unibertsitatean, eta *Cuestión de confianza: más allá de la inteligencia emocional* liburua idatzi du. Ondoko sariak jaso ditu: ESIC-eko 2007ko saria ibilbide profesionalarentzat, SER navarro 2008 eta Zuzendari eta Exekutiboan Espainiako Konfederazioko 2009ko saria.

Daniel Innerarity

Nació en Bilbao en 1959. Actualmente es catedrático de filosofía social y política en la Universidad de Zaragoza. Antiguo becario de la Fundación Alexander von Humboldt. Sus últimos libros son *Ética de la hospitalidad*, *La transformación de la política* (III Premio de Ensayo Miguel de Unamuno y Premio Nacional de Ensayo 2003), *La sociedad invisible* (XXI Premio Espasa de Ensayo), *El nuevo espacio público* y *El futuro y sus enemigos*. Ha recibido también el Premio de Humanidades, Cultura, Arte y Ciencias Sociales de la Sociedad de Estudios Vascos/Eusko Ikaskuntza en 2008. Es colaborador habitual de opinión en los diarios *El País* y *El Correo / Diario Vasco*, así como de la revista *Claves de razón práctica*. Miembro de la Academia de Ciencias y Artes con sede en Salzburgo.

Sixto Jiménez Muniain.

Nacido en Sangüesa en 1950, estudió Económicas en Deusto. Ha sido consejero delegado de IAN, y del grupo Viscofán. Actualmente es presidente de Tuttipasta (platos preparados), y es vocal de los consejos de: Metrovacesa, Gecina (Francia-inmobiliaria), Lokku (UK-internet), Riberebro (conservas vegetales), Innoliva (España-Portugal aceite) y Argenol (farmacia). En el mundo de la cultura es miembro del Advisory Board of CBS of the University of Reno, patrono de la Fundación para el estudio del derecho histórico de Vasconia (FHEDAV) y vicepresidente por Navarra de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. Es tesorero de Jakiunde- Academia Vasca de las Ciencias, Artes y Letras. Ha sido profesor universitario y es autor del libro *Cuestión de confianza: más allá de la inteligencia emocional*. Recibió el premio trayectoria profesional ESIC 2007; el premio SER navarro 2008 y el premio de la confederación española de directivos y ejecutivos 2009.



pedromigueletxenike

alferrikako zientziaren baliagarritasun gorena (gaztelaniaz)
la sublime utilidad de una ciencia inútil

Izaban jaio zen, 1950eko ekainean. Zientzia Fisikoetako lizentziaduna da, Nafarroako Unibertsitatean, Philosophical Doctor delakoa, Cambridgeko Unibertsitatean, Zientzia Fisikoetako doktorea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta Doctor of Science delakoa, Cambridgeko Unibertsitatean. Egun, Donostia Internacional Physics Center Fundazioko burua da. Euskal Herriko Unibertsitatean aritzen da irakasle, eta Materia Kondentsatuaren Fisikako katedraduna da han. Ikerketa-lanari dagokionez, partikulen fisika, batetik, eta, bestetik, kargek eta erradiazioak materiarekin duten interakzioa jorratu ditu. 300 lan inguru argitaratu ditu zientzia arloko ospe handiko aldizkarietan. Sari ugari jaso ditu: Príncipe de Viana, kultura arloan; Príncipe de Asturias, ikerkuntza arloan; Euskadi, ikerkuntza arloan; UPV/EHU-ko Donostiako campuseko errektore dominak; Gipuzkoa; Espainiako Fisikako Errege Elkartearena; Blas Cabrera sari nazionala, zientzia fisikoen arloan; eta Sabino Arana. Honoris causa doktorea da, Valladolideko Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburua izan zen, 1980tik 1984ra.

Nacido en Isaba en junio de 1950, Etxenike es licenciado en Ciencias Físicas por la Universidad de Navarra, Philosophical Doctor por la Universidad de Cambridge, doctor en Ciencias Físicas por la Universidad Autónoma de Barcelona y Doctor of Science por la Universidad de Cambridge. Preside actualmente la Fundación Donostia Internacional Physics Center. Su labor docente la ejerce en la Universidad del País Vasco, donde es catedrático de Física de la Materia Condensada. Su trabajo de investigación se ha centrado en la Física de partículas y en la Interacción de cargas y radiación con la materia. Ha publicado alrededor de 300 trabajos en prestigiosas revistas científicas. Su lista de premios es extensa: Príncipe de Viana de la Cultura, Príncipe de Asturias de Investigación, el Premio Euskadi de Investigación, Medallas de Oro de la UPV/EHU, de San Sebastián, de Gipuzkoa, de la Real Sociedad Española de Física, Premio Nacional Blas Cabrera de Ciencias Físicas, Premio Sabino Arana. Es también doctor honoris causa por la Universidad de Valladolid y la Universidad Pública de Navarra. Fue consejero de Educación y Cultura del Gobierno Vasco entre 1980 y 1984.



bernardoatxaga

Gogoeta harri berezi baten inguruan (euskaraz)

Bernardo Atxaga (Asteasu, Gipuzkoa, 1951) Joseba Irazu Garmendiaren izengoitia da. Zientzia Ekonomikoetan lizentziaduna da. Klase askotako lanak egin zituen harik eta laurogeiko hamarkadan literaturari bakarrik ekin arte. Idazteko oso modu pertsonala du, eta horregatik, eta estilo hori biltzen duen mundu literarioagatik ere, euskarak hizkuntza jaso gisa duen adierazkortasun eta sendotasunaren erreferentzia bilakatu da Atxaga. *Obabakoak* (1988) liburuak mundu hispaniko osoaren mirespena jaso zuen. Jasotako sariak (Euskadi saria, Kritikarena eta Prix Millepages delakoa) eta hogeitaz hitzuntza baino gehiagotara itzuli izanak ospe handia eman diote egileari, lan berri bakoitzarekin berretsi dena, orain arte. *Poemas & Híbridos* (1993) poema-bilduma goraiapatua, *Bi anai* (1995) edo *Zeru horiek* (1996) horren adibide garbiak dira. Genero guztiak lantzen ditu: prosa, poesia, saiakera, antzerkia, haur-literatura.... Bere azken eleberria *Zazpi etxe Frantzian* (2009) da.

Bernardo Atxaga (Asteasu, Gipuzkoa, 1951) es el pseudónimo de Joseba Irazu Garmendia. Licenciado en Ciencias Económicas, desempeñó oficios variopintos hasta que, a comienzos de los ochenta, consagró su quehacer exclusivamente a la literatura. Su personalísima escritura y el mundo literario que la envuelve han convertido a Atxaga en excelente referencia de la expresividad y la solidez del euskera como lengua culta. La publicación de *Obabakoak* (1988) cosechó el fervor entusiasta de todo el mundo hispánico. La concesión del Premio Euskadi, del Premio de la Crítica, del Prix Millepages y su traducción a más de veinte idiomas han reportado al autor un merecido respeto, revalidado hasta la fecha sin excepción en cada una de sus entregas. *La celebrada recopilación poética Poemas & Híbridos* (1993), *Bi anai* (1995) o *Zeru horiek* (1996) son inmejorables ejemplos. Autor de una extensa obra, cultiva tanto la prosa como la poesía, el ensayo, el teatro o la literatura infantil. Su última novela: *Zazpi etxe Frantzian* (2009).



garbiñebiurrun

justizia eta demokrazia (euskaraz)
justicia y democracia

Tolosan jaio zen, 1960an. Magistratua eta Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Saileko presidentea da. Lan-zuzenbideko irakasle elkartua da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Ikerkuntza juridiko arloko hainbat lan idatzi ditu. Epailea izan zen Tolosan, 1987tik 1989ra. Gero, Donostiako Lan-arloko 3. Epaitegian aritu zen (1990-1998). 2009ko irailetik, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Saileko presidentea da. Ondoko elkarteetako kidea da: Jueces para la Democracia, Gesto por la Paz, Lokarri eta Eusko Ikaskuntza. Euskadiko hainbat komunikabidetan aritzen da politika-analista gisa.

Nace en Tolosa, en 1960. Es magistrada y presidenta de la Sala de lo Social del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Profesora Asociada de Derecho del Trabajo de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). Es autora de varios trabajos de investigación jurídica. Fue jueza de Tolosa entre los años 1987 y 1989. Luego estuvo en el Juzgado nº 3 de lo Social de Donostia (1990-1998). Desde septiembre de 2009 preside la Sala de lo Social del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Es miembro de Jueces para la Democracia, Gesto por la Paz, Lokarri y Eusko Ikaskuntza. Colabora en medios de comunicación vascos como analista política.